

2024-2027KO LURRALDEKO ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN PLAN ESTRATEGIKOA

LABURPEN EXEKUTIBOA



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE POLÍTICA TERRITORIAL
Y MEMORIA DEMOCRÁTICA

Catálogo de publicaciones de la Administración General del Estado
<https://cpage.mpr.gob.es>

PLAN ESTRATÉGICO DE LA AGE EN EL TERRITORIO 2024-2027. Resumen ejecutivo
Ministerio de Política Territorial y Memoria Democrática
Secretaría de Estado de Política Territorial
Secretaría General de Coordinación Territorial
Dirección General de la Administración General del Estado en el Territorio

NIPO: 127-24-043-2

LURRALDEKO ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRA ETA PLANIFIKAZIO ESTRATEGIKOA


Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duen martxoaren 19ko 273/2024 Errege Dekretuaren arabera, Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorraren Zuzendaritza Nagusia (DGAGET, gaztelaniazko sigletan) arduratzen da Estatuko Administrazio Orokorraren jardura lurraldean koordinatzeaz eta Gobernuaren ordezkartzen baliabideak kudeatzeaz. Zuzendaritza Nagusiak, 100 langile baino gehiago dituenak, Gobernuaren Ordezkaritzak eta Ordezkariordeztzak eta Uhartetar Zuzendaritzak osatzen dituzten ia 6.000 enplegatu publikok osatutako erakunde baten gaineko eskumenak betetzen ditu.

Lurraldean kudeatzen diren eremuen artean funtsezko sektoreak aurkitzen dira (energia, migrazioak eta mugako osasun-kontrola, esaterako) Gobernuaren Ordezkaritzetan integratutako zerbitzuek ematen dituztenak, ministerio-sail askori dagozkien sektore-eskumenak baliatzen dituztenak. Gainera, lurraldean duen presentzia handiagatik, ezinbesteko lana egiten du informazio, laguntza eta erregistro-funtzioak lurralde nazional osora hurbiltzeko.

2020an, DGAGETek epe ertain eta luzerako ildo estrategikoak eta jarduketak definitzeko hausnarketa-lanari ekin zion, haien ohiko kudeaketa bideratzeko helburuarekin. Orduan, Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorrak ematen dituen zerbitzuak hobetzeko Plan Estrategiko Integrala onartu zen: “40 neurri, herritarren zerbitzura lurraldean dagoen Estatuko Administrazio Orokor baterako”. 2022tik aurrera osatu zen, helburuen arabera zuzendaritzaren lehen esperientziekin.

Lortutako ikaskuntzatik abiatuta, eta etengabeko hobekuntza-ildo bat finkatzeko asmoz, hurrengo 4 urteetarako plangintza berri bat diseinatu egiten da, **herritarrei zerbitzua emateko helburua duen** eraldaketa bultzatu nahi duena, Gobernuaren Ordezkaritzak Estatuko Administrazio Orokorrak lurraldean duen ordezkartza gisa finkatu behar direla ulertzeko, eta lurralde nazionalako edozein tokitan herritarrek beti irekita izango duten ate gisa.

Prozesuan, **plangintza estrategikoaren printzipio metodologikoak** jarraitu dira, fase hauek kontuan hartuta:



PRINTZPIO ORIENTATZAILEAK

Plan Estrategikoaren fase guztietan zeharkako printzipio orientatzaile nagusi batzuk mantentzen dira, hala nola **berdintasuna**, **inklusioa eta kontu-ematea**, bai eta **teknologia Plana errazteko tresnatzat hartzea** ere.

BERDINTASUNA

- **Genero-ikuspegia diagnostikoan** eta enplegatu publikoen eta zerbitzuen erabiltzaileen analisia.
- **Genero-ikuspegia** giza baliabideak kudeatzeari eta herritarrei zerbitzu bat emateari buruzko jarduketetan.
- **Genero-ikuspegia aurrekontu-zuzkiduran**, Gobernuaren Ordezkaritzetan integratutako Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Koordinazio Unitateentzako zuzkidurarekin.
- **Berdintasun-ordezkaritza Planaren gobernantzan**, Zuzendaritza Batzordean eta Koordinazio Taldean emakumeen eta gizonen presentzia orekatu batekin (% 50).
- **Berdintasunezko hizkuntza**, genero-joerak edo genero-estereotipoak saihestuko dituen terminologiaren bidez.

INKLUSIOA ETA PARTE-HARTZEA

- **Pertsona guztien inklusioa**, zerbitzuak eskuratzeko oztopoak ezabatuz, landa-izaeratik, adinetik, jatorritik, hizkuntzatik, desgaitasunetik edo eten digitaletik eratorritakoak.
- Gobernuaren ordezkaritzen eta enplegatu publikoen **barne partaidetza**.
- **Herritarren partaidetza**, zerbitzuarekiko gogobetetasuna adierazteko tresnen bidez eta arreta hobetzeko kolektiboen parte-hartzearen bidez.

KONTU-EMATEA

- **Herritarrengantz bideratuak**, Planaren argitalpenean eta emaitzetan komunikazioa eta gardentasuna sustatuz.
- **Erakunderantz bideratuak**, giza kapitala lan egiten duen erakundearen jakitun bihurtuz.

TEKNOLOGIA TRESNA BIDERATZAILE GISA

- **Arlo publikoaren kudeaketaren optimizazioan**, enplegatu publikoei balioa sortzen lagunduz, antolaketa-eredu berritzaileak eta informazio-sistemak sustatuz.
- **Herritarrekiko harremanaren hobekuntzan**, beti irekita eta eskuragarri dauden zerbitzu elektronikoaren bidez.

MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

MISIOA

- Herritarrei zerbitzu hurbila eta kalitatezkoa ematea lurralde osoan, Gobernuaren Ordezkaritzen bidez, Estatuaren presentzia eta ordezkaritza ikusaraziz eta baliabideen kudeaketa eraginkorretik administrazioen arteko koordinazioa sustatuz.

IKUSPEGIA

- Administrazio irisgarria, hurbila, eraginkorra, gardena eta berritzailea izatea, lurralde-kohesioa, berdintasuna Gobernuaren Ordezkaritzen zerbitzuetarako sarbidean eta Jaurlaritzaren politiketan ekintza-batasuna bermatuz.

BALIOAK

➤ Hurbiltasuna eta irisgarritasuna

Zerbitzu publikoarekiko duen arduran, Estatuko Administrazio Orokorrak herritarren eskura dagoen Administrazioa izan nahi du, lurralde nazional osoan duen presentziari esker, haien beharrak aktiboki entzuten duena. Kanal guztietatik eta pertsona guztientzat erabat irisgarria den Administrazioa izateko lan egiten du, herritarrentzako zerbitzuan oinarritutako marka-irudi bat sendotuz.

➤ Eraginkortasuna eta kalitatea

Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorrak bere jardueretan, baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzea du xede, herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena emateko antolaketaarako modurik arduratsuenean, kudeaketa publikoa etengabe hobetzea eta herritarrekiko harremanean ahalik eta kalitate handiena lortzea bilatuz.

➤ Jasangarritasuna

Ingurumenaren ikuspegitik, Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorrak baliabideen kudeaketa jasangarriaren aldeko apustua egiten du ingurunean inpaktu positiboak sustatzeko, ingurumena eta ondarea zaintzen lagunduz. Era berean, erroka demografikoari aurre egin nahi zaio, lurralde osoko ekitatearen eta kohesioaren bidez, eta, aldi berean, epe luzera finantza-egoera egonkor eta osasungarri bati eutsiz.

➤ Koordinazioa eta lankidetzatza

Bere jardueretan, Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorrak etengabeko harremana mantentzen du estatuko eta lurraldeko beste erakunde batzuekin, eta baterako lanaren aldeko apustua egiten du, politika publikoen emaitza onenak lortzeko formula gisa, Estatuak lurralde osoan duen presentzia eta ordezkaritza ikusaraziz.

➤ Gardentasuna

Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorrak informaziorako sarbide erraza eskaini nahi die herritarrei, informazio publikoaren publikitate aktiboa eta berrerabilpena sustatuz, eta informazio publikorako eskubidea arduraz aplikatuz. Gainera, jardueren osotasuna eta eredugarritasuna bermatzeko, gardentasunarekiko konpromisoa herritarrei kontuak ematera ere hedatzen da.

ESTRATEGIA: ARDATZ ESTRATEGIKOAK, HELBURUAK ETA JARDUERA-PROGRAMAK

Plan Estrategikoa **4 ardatz estrategikoren** inguruan antolatzen da. Ardatz horiek erakundearentzat lehentasunezkoztat jotzen diren jarduera-eremuak identifikatzen dituzte: herritarrak, giza baliabideak, erakundearen ikusgarritasuna eta jasagarritasuna. Ardatz horien gainean **15 helburu estrategiko** ezartzen dira, egoeraren aurretiko diagnostikoan hautemandako arazoei, beharrei eta erronkei erantzuteko. Horiek lortzeko, **41 jarduera-programen** inguruan antolatutako tresnen multzoa ezartzen da.



Zuzendaritza Batzordeak honako ardatz estrategiko hauek identifikatu ditu Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorrak datozen 4 urteetan jarduteko lehentasunezko arlotzat: herritarrak, giza baliabideak, erakundearen ikusgarritasuna eta iraunkortasuna:

1. ARDATZA

Herritarrentzat eskuragarri dagoen eta kalitatezkoa den administrazio bat

2. ARDATZA

Zerbitzu publikoak eraginkortasunez ematera bideratutako giza baliabideak

3. ARDATZA

Ezagugarria eta homogeneoa den ikusgarritasun instituzionala

4. ARDATZA

Jasagarritasunarekiko konpromisoa

1. ARDATZA

Herritarrentzat eskuragarri dagoen eta kalitatezkoa den administrazio bat

- Erakundearentzako lehentasunezko eta garrantzi handieneko ardatza da, eta, jarduera-programen bidez, aurreikusitako ahaleaginean islatzen da.
- **Herritarrak** dira erakundeak ardatz honetan gauzatzen duen ekintzaren muina, emandako zerbitzuaren **kalitatea** eta dauden kanal guztien eta **pertsona guztientzako hurbiltasuna eta irisgarritasuna** indartuz, lurralde bakoitzeko egoera desberdinak ere kontuan hartzen dituen ikuspegi batetik.

2. ARDATZA

Zerbitzu publikoak eraginkortasunez ematera bideratutako giza baliabideak

- Herritarrekin batera, Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorra osatzen duten **enplegatu publikoak** dira Plan honen ekintzaren beste lehentasun garrantzitsua, giza baliabideak baitira erakundeak herritarrei behar duten zerbitzua eskaintzeko duen kapital nagusia.
- Ardatz honen helburua giza baliabideak ahalik eta modu eraginkorrenean **planifikatzea eta kudeatzea** da, ministerio funtzionalekin koordinatuta; horretarako, **antolaketa-eredu berriak** aplikatu, haien **gaikuntza eta lan-baldintzak** hobetu, talentua atxikitzea errazteko, eta **planifikaziorako** eta erabakiak hartzeko tresnak txertatuko dira, helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko.

3. ARDATZA

Ezagugarria eta homogeneoa den ikusgarritasun instituzionala

- Estatuaren presentzia eta ordezkaritza ikusaraztea eta administrazioen arteko koordinazioa sustatzea Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorren misioaren parte da, bere ikuspegiaren eta balioetan gardentasuna xede duelarik.
- Ardatz honek **erakundearen ikusgarritasuna** sendotzea du helburu, Gobernuaren Ordezkaritzen irudia indartuz, Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorra koordinatzeko **lidergoaren** eta **irudi fisikoaren eta webgunearen irudiaren** bidez, **gardentasunaren eta herritarrei kontuak ematearen** aldeko apustua barne.

4. ARDATZA

Jasangarritasunarekiko konpromisoa

- Administrazioaren jarduerak **ingurumenean** duten eraginaz jabetuta, ardatz honen bidez, Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorra bere kudeaketa bere balioetan sustatzen duen **iraunkortasun**-printzipiora egokitu nahi du.
- Ardatz honek **eraginkortasun energetikoaren** eta **baliabideen erabilera optimizatzearen** alde egiten du kontsumoa murrizteko eta, horrela, ingurunearen gaineko inpaktua minimizatzeko. Helburu horien artean, paperik erabiltzen ez dituzten bulegoetarako aldaketa ere nabarmentzen da.

1. HE

IRISGARRITASUNA AURREZ
AURREKO ARRETAN

2. HE

KANAL ANITZEKO ARRETA-
EREDU IRISGARRI ETA
ERAGINKOR BERRIA

3. HE

KUDEAKETA DIGITALIZATZEA,
HERRITARTASUNA
HOBETZEKO

4. HE

HERRITARREI KALITATEZKO
ZERBITZUAK EMATEA
LURRALDE OSOAN

5. HE

BEREZITASUNAK BERARIAZ
TRATATZEA HERRITARREI
ARRETA EMATEKO
PENINTSULAZ KANPOKO
LURRALDEETAN (CEUTA ETA
MELILLA, BALEAR UHARTEAK
ETA KANARIAK) ETA
HIZKUNTZA KOOFIZIALAK
DITUZTENETAN

6. HE

GIZA BALIABIDEAK
ANTOLATZEKO ESTRATEGIA
KOMUN BAT ZEHAZTEA,
MINISTERIO
FUNTZIONALEKIN
LANKIDETZAN

7. HE

ZERBITZU INTEGRATUAK
ERAGINKORTASUNEZ
KUDEATZEKO EGITURA
BERRIAK DISEINATZEA

8. HE

GIZA BALIABIDEAK
GAITASUNEN ARABERA MODU
ERAGINKORREAN
KUDEATZEKO NEURRIAK
EZARTZEA, EGITURA
BERRIETARA EGOKITUTA

9. HE

HELBURUEI LOTUTAKO
PLANGINTZAN ETA
ORDAINSARIAN
OINARRITUTAKO KUDEAKETA
FINKATZEA

10. HE

GIZA BALIABIDEEN
KUDEAKETEN
BEREZITASUNEN GAINEKO
BERARIAZKO ARRETA
PENINTSULAZ KANPOKO
LURRALDEETAN (CEUTA ETA
MELILLA, BALEAR UHARTEAK
ETA KANARIAK) ZERBITZUAK
ERAGINKORTASUNEZ
EMATEKO

11. HE

EKINTZA UNITATEA LUR-
RALDEKO ESTATUKO ADMIN-
ISTRAZIO OROKORRAREN
EKINTZA-UNITATEA

12. HE

IRUDI INSTITUZIONAL
BAKARRA ETA EZAGUGARRIA

13. HE

GARDENTASUNA ETA
GOBERNU IREKIA

14. HE

LURRALDEKO ESTATUKO
ADMINISTRAZIO
OROKORREKO BALIABIDEEN
ERABILERA JASANGARRIA

15. HE

PAPERIK GABEKO
ADMINISTRAZIO BAT

1. ARDATZA

Herritarrentzat eskuragarri dagoen eta kalitatezkoa den administrazio bat



1. HE Irisgarritasuna aurrez aurreko arretan

Herritarrekiko hurbiltasun fisikoa da Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorraren indarnabarmenetako bat, eta, horregatik, **pertsona guztiei aurrez aurreko arreta edozein lurraldetan bermatzea da** 1. Helburu Estrategikoaren helburua. Helburu hori 5 programen bidez bideratzen da eta helburu hauek dituzte: Administrazioa landa-eremura eramatea (1.1)¹, iristeko zailtasun handienak dituzten kolektiboei arreta bermatzea (1.2), irisgarritasun unibertsala betetzen duten espazio inklusiboak ziurtatzea (1.3), eta lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorraren edozein zerbitzutarako sarbidea erraztea, zentro bakar batean integratutako formulen bidez (1.4 eta 1.5).

2. HE Kanal anitzeko arreta-eredu irisgarri eta eraginkor berria

Teknologiak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz, Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorraren 2. helburu estrategikoa da, **aurrez aurrekoak ez diren kanalen bidez, herritarrei Administrazioarekiko komunikazioa erraztea**, hala nola telefono-kanalaren eta *chatbox*-aren bidez (2.1 eta 2.2) eta SMS bidez, egindako kudeaketei buruzko etengabeko informazioa jasotzeko (2.3).

3. HE Kudeaketaren digitalizazioa herritartasuna hobetzeko

Aukera teknologiko horiek 3. Helburu Estrategikoan erabiltzen dira ere, atzeritartasunaren (3.1) eta energia berriztagarrien (3.2) esparruan **prozedura elektronikoen bidez herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzeko**.

4. HE Lurralde osoan herritarrei kalitatezko zerbitzuak ematea

Hurbiltasun eta irisgarritasunarekin batera, Estatuko Administrazio Orokorrak kalitatea ere lortu nahi du herritarrekin duen harremanean. 4. Helburu Estrategikoaren xedea da ministerio funtzionalekin (4.1) lankidetzan **emandako zerbitzuen kalitatea hobetzea**, barne-azterketa eta jardunbide egokien hedapena sustatuz (4.2) eta egiaztatutako kalitate-sistemak ezarriz (4.4), bai eta herritarrek emandako zerbitzuei buruz duten pertzepzioa aztertuz ere (4.3).

5. HE Penintsulaz kanpoko lurraldeetan (Ceuta eta Melilla, Balear Uharteak eta Kanariak) eta hizkuntza koofizialak dituzten lurraldeetan herritarrei arreta emateko dituzten berezitasunen berariazko tratamendua


5. Helburu Estrategikoaren xedea da **herritarrentzako arreta hobetzea**, zenbait lurraldek hainbat arrazoiengatik dituzten **berezitasunei helduz**; besteak beste, hizkuntza koofizialekin emandako arreta (5.1 eta 5.2) eta lurralde jakin batzuetan bakarrik emandako zerbitzuak, hala nola

(1) Parentesi artean sartu dira Planaren testu osoan jasotako jarduketara-programei buruzko aipamenak.

Ceutan eta Melillan (5.3 eta 5.6 bitartean). Helburu estrategiko honek erakunde osoarentzat ezarritako gainerako helburu estrategikoei jorratzen ez dituzten lurralde horietako egoera espezifikoak biltzen ditu. Balear Uharteetan eta Kanarietan herritarrei ematen zaien arretaren berezitasuna uharteetako zuzendaritzetan

zentro integralak (1.4 eta 1.5) lehentasunezko garapenarekin jasotzen da.

Hauetara 1. ardatzeko 5 helburu estrategikoak lortzen laguntzen duten **20 programak**:



2. ARDATZA

Zerbitzu publikoak eraginkortasunez ematera bideratutako giza baliabideak



6. HE Giza baliabideak antolatzeke estrategia komun bat zehaztea, ministerio funtzionalekin lankidetzan

6. Helburu Estrategikoaren xedea Estatuko Administrazio Orokorren premia espezifiko bati erantzutea da. Premia hori jarduerak-erlari ugari kudeatzearen ondorio da, eta **beharrezkoak diren giza baliabideen antolamendu eraginkorra ezartzeko, eragindako ministerio funtzionalekin lankidetzan aritzea eskatzen du.** Horregatik, helburu estrategiko hori lanbide-jarduerak planifikatu eta antolatzea eta Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorren giza baliabideak hornitzera bideratutako programa baten (6.1) inguruan egituratzen da.

7. HE Zerbitzu integratuak eraginkortasunez kudeatzeko egitura berriak diseinatzea

Enplegu publikoaren bilakaerara eta lurraldeen arteko desberdintasunetara egokitzeko, eta administrazio elektronikoak eskaintzen dituen aukerak baliatzeko, Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorren, 7. Helburu Estrategikoaren bidez, **aurrera egin nahi du antolaketa-eredu berrien ezarpenean, zerbitzu hobea eskaini ahal izateko baliabideen eraginkortasun handiagoari esker.** Bi programak bideratzen dituzte helburu hori lortzeko jarduketak: bata, prozeduren barne-izapidetzea deslokalizatzeke (7.1)zuzendua, eta, bestea, kudeaketa ekonomikoaren eta langileen kudeaketaren efizientzia hobetzeko (7.2)zuzendua.

8. HE Giza baliabideak gaitasunen arabera modu eraginkorrean kudeatzeko neurriak ezartzea, egitura berrietara egokituta

Giza baliabideen kudeaketak zailtasun berezia du Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorren, lurralde-banaketa eta langileen eginkizunen espezialitatea uztartu behar baitira. Horregatik, 8. Helburu Estrategikoaren xedea **langileen zuzkidura eta gaikuntza hobetzea eta, aldi berean, erabakiak hartzeko tresna egokiak izatea da.** Helburu estrategiko hori lortzeko, bi jarduerak-programa aurreikusten dira, pertsonalaren egonkortasuna bilatzen dutenak, langileen gogobetetasunari balioa emanez eta langileen kontratazioa sustatuz (8.1), bai eta giza baliabideen informazio-sistema bat ezartzea ere (8.2).

9. HE Helburuei lotutako plangintzan eta ordainsarian oinarritutako kudeaketa finkatzea


9. Helburu Estrategikoaren helburua erakundearen kultura aldatu nahi du, **plangintza eta kudeaketarantz aurrera egiteko, ordainsari-osagarriak jasotzearekin lotutako helburuetatik abiatuta.** Horretarako, sistema integral bat ezarri behar da, plangintza estrategikoa (9.1), Helburuen araberrako Zuzendaritza (9.2) eta horrek ordainsariekin duen lotura (9.3) barne hartuko dituen, bai eta sistemak ondo funtzionatzeko behar den informazioa emango duten tresna teknologikoen hornidura ere (9.4).

10. HE Penintsulaz kanpoko lurraldeetan (Ceuta eta Melilla, Balear Uharteak eta Kanariak) zerbitzuak eraginkortasunez emateko giza baliabideen kudeaketan berezitasunen gaineko berariazko arreta

Azkenik, 2. ardatzean giza baliabideen kudeaketak penintsulaz kanpoko lurraldeetan duen kasuistika berezia ere jaso da, eta, ondorioz, neurri espezifikoak hartzera behartzen duena. 10. Helburu Estrategikoak ad

hoc ekintzak garatzea du helburu, lurralde horietan herritarrek jasotzen duten zerbitzua Estatuko gainerako eremuarekiko berdintasun-baldintzetan ematen zaiela ziurtatzeko. Horretarako, herritarrei arreta emateko lanpostuak betetzea eta antolaketa-eredu berrien ezarpena sustatzeko jardura espezifikoak biltzen dituen programa bat formulatu egiten da (10.1).

Hauetara 2. ardatzeko 5 helburu estrategikoak lortzen laguntzen duten **10 programak**:



3. ARDATZA

Ezagugarria eta homogeneoa den ikusgarritasun instituzionala



11. HE Estatuko Administrazio Orokorraren ekintza-unitatea lurraldean

Gobernuaren ordezkariak egiten duten koordinazio-funtzioak Estatuko Administrazio Orokorrak lurraldean duen ordezkariaren lidergoa izatea ahalbidetu behar du. Horregatik, 11. Helburu Estrategikoaren xedea da **Estatuko Administrazio Orokorrak lurraldean dituen erakundeek koordinazioa erraztea**, Estatuko Administrazio periferikoa koordinatzeko ministerio arteko batzordea berraktibatze eta sendotzeko programa baten bidez (11.1).

12. HE Irudi instituzional bakarra eta ezagugarria

12. Helburu Estrategikoaren ardatza Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorrak duen **ikusgarritasuna eta identifikazioa alderdi guztietan indartzea da**. Horretarako, bi programa bultzatu dira, Gobernuaren

Ordezkaritzen eta Ordezkariordeztzen eta Uhartetar Zuzendaritzen arreta-guneen irudia bateratzeko (12.1) eta Gobernuaren Ordezkaritzen web-ataria berrorientatzea, zerbitzuak irudi ezagun batetik eskura daitezkeen (12.2).

13. HE Gardentasuna eta gobernu irekia

Estatuko Administrazioan oro har bultzatutako gobernu irekiaren politika publikoaren ildotik, 13. Helburu Estrategikoaren helburua **herritarrek konfiantza oinarritutako harremana ezartzea da, Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorrak hobeto ezagutzeari esker**. Horretarako, herritarren eskura dagoen informazio publikoa zabaltzearen alde egiten duen programa bat sartu da, beren egoitzetan egiten dituzten jardueren parte izan dadin eta Gobernuaren Ordezkaritzen ondarea ezagutzera ematen duena (13.1), eta sare sozialen bidezko komunikaziora bideratutako bigarren programa bat (13.2).

11. HE Estatuko Administrazio Orokorraren ekintza-unitatea lurraldean

11.1
Gobernuaren ordezkariak Estatuko Administrazio Orokorrak gainerako erakundeekin koordinatzeko eginkizunaren indarketa

12. HE Irudi instituzional bakarra eta ezagugarria

12.1
Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorraren arreta-guneen irudiaren bateraketa

12.2
Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorraren web-irudiaren sendoketa

13. HE Gardentasuna eta gobernu irekia

13.1
Gardena eta herritarrei irekia dagoen administrazio baten finkaketa

13.2
Sare sozialen indarketa, herritarrei informazioa emateko bitarteko gisa

4. ARDATZA

Jasangarritasunarekiko konpromisoa



14. HE Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorreko baliabideen erabilera jasangarria

Ingurumena errespetatzen duen kudeaketa sendotzea da 14. Helburu Estrategikoaren xedea. Hori lortzeko, lau jarduera-programa daude, honakoa lortzeko pentsatuak daudenak: energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera hobetzea (14.1); lan-espazioen erabilera optimizatzea (14.2) eta baliabideen erabilera jasangarriantz aurrera egitea, uraren eta paperaren kontsumoa murriztuz; baliabide teknologikoetan ekonomia zirkularra sustatuz kolektiboek dohaintzak egitea; eta hondakinen eta birziklatzearen kudeaketa selektiboa egitea (14.3). Finantza-jasangarritasuneko programa bat jasotzen da ere, Lurraldeko Estatuko Administrazio Orokorrek dituen baliabide ekonomikoak ahalik eta ondoen erabil daitezen (14.4).

15. HE Paperik erabiltzen ez duen administrazioa

Aurrerapen teknologikoek eskaintzen duten aukera aprobetxatuz, 15. Helburu Estrategikoak, Plana itxi egiten duena, paperik gabeko bulegoak sendotzea du xede. Horretarako, bi programa aurreikusten dira, paperezko artxiboak ezabatzen aurrera egiteko (15.1) eta digitalizazio eta higiene digitalaren kultura ezartzeko, sare-unitateetan eta biltegiatze elektronikoko beste sistema batzuetan dauden dokumentuak errazago antolatzeko (15.2).

14. HE
Lurraldeko Estatuko Administrazio
Orokorreko baliabideen erabilera
jasangarria

14.1 Energia-
eraginkortasuna eta
energia berriztagarrien
erabileraren bultzaketa

14.2
Espazioen erabilera
jasangarria

14.3
Baliabideen eta
hondakinen kudeaketa
jasangarria

14.4
Jasangarritasun
finantzarioa

15. HE
Paperik erabiltzen ez duen
administrazioa

15.1
Paperezko fitxategiak
murrizteko plana

15.2
Digitalizazio plana eta
higiene digitala

PARTE HARTZEA, JARRAIPENA ETA HEDAPENA

Plan Estrategikoan, inklusioa eta parte-hartzea zeharkako printzipio orientatzaile gisa mantentzen dira, eta, elaborazioaren kasuan, **prozesua eragile askori irekitzea** dakar, bai DGAGETeko unitateetatik, bai Gobernuaren ordezkarietatik, alderdi jakin batzuetan aditu diren aldetik, bai Planean funtsezko alderdi interesdun diren aldetik, bai enplegatu publikoetatik. Horien guztien parte-hartze aktibotik abiatuta, onartutako dokumentua lortzen da azkenean.

Plan Estrategikoa bere aldi osoan (2024-2027) hedatzeko, tresna operatiboak behar dira inplikaturako alderdi guztien ahaleginak epe laburrean bideratzeko eta epe luzean lorpen nabarmenak lortzeko beharrezkoak diren ekintzak modu ordenatuan gauzatzen laguntzeko. **Urteko ekintza planak** dira Plan Estrategikoaren tresna operatibo nagusia, eta horietako lehena, 2024rako dena, Plan Estrategikoarekin batera onartzen da. Plano operatiboa **Gobernuaren Ordezkaritza eta Ordezkariordeztetarako eta Uhartetar Zuzendaritzetarako helburu operatiboen urteko planekin** osatzen da, 2022an erakundean hasitako Helburuen araberrako Zuzendaritzaren ibilbidearekin jarraitzen baitute.

Plan Estrategikoak lortu nahi diren lorpenen eskuraketa-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko **jarraipen-sistema eta ebaluazio-sistema** oso bat jasotzen du; izan ere, horrela erakundeak izango du soilik esku hartzeko gaitasuna desbideratze posibleen aurrean, eta, ezarritako helburuak betetze aldera, egoera birbideratzeko.

Diseinatutako sistemak honakoa ezartzen du:

- **41 jarduera-programetako bakoitzerako emaitza eta inpaktu-adierazleak;** izan ere, programekin lortutako emaitzak eta inpaktuak eragina duten helburu estrategikoen betetze-maila ebaluatzeko aukera ematen du. Emaitza-adierazleek programak lortu nahi izan duen emaitza balioesten dute; inpaktu-adierazleek, berriz, emaitza horrek erakundean eta ingurunean izan dituen ondorioak ebaluatzen dituzte.

- **233 jarduketetako bakoitzerako prozesu edo gauzatze-adierazleak,** ezarritako moduan osatu diren ebaluatzeko.
- **Ekintza Planean** jarduketa bakoitzak **lortu beharreko emaitza, urteko jomuga bat ezarritik**, epe laburrean jarduera hori programa osoa bete ahal izateko behar bezala aurrera egiten ari den ebaluatzeko aukera ematen duena.
- **Jarduketen haztapena,** bakoitzaren antolaketarako konplexutasun, iraupen, kostu edo garrantzi-zirkunstantziak islatzeko.

Adierazle horiei buruzko etengabeko jarraipena urteko ekintza-planen **jarraipen-txostenen** bidez aurreikusten da, urtero lortutako emaitzak ezagutzeko eta, hala badagokio, Planean eguneratze posibleei buruzko beharrezko erabakiak hartzeko. **Planean jarraipenari eta ebaluazioari buruzko azken txosten bat egingo da** ere. Txosten horretan, plan osoaren eta ezarritako emaitza- eta eragin-adierazleetan lortutako jardunaren jarraipena egingo da.

Bai Plan Estrategikoa eta urteko ekintza-planak, bai urteko jarraipen-txostenak **sailaren webgunean eta Gardentasunaren Atarian argitaratuko dira**, herritarrei kontuak emateko dinamika ezartzeko, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 6.2 artikuluan sustatuta.

GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE POLÍTICA TERRITORIAL
Y MEMORIA DEMOCRÁTICA